



**Gradu Amaierako Lana**

**SIONISMOAREN ALIATU KRISTAUAK: MOTIBAZIO  
IDEOLOGIKOAK**

**Historiako Gradua**

**2018-2019 ikasturtea**

**Egilea: Martín Zozaya Zarco**

**Tutorea: Frantses Xabier Zabaltza Pérez-Nievas**

**Saila: Aro Garaikide eta Egungo Mundua**

# LABURPENA

Gaur egun, Israelgo Estatu nazioarteari begira dagoen eztabaida politiko ohikoena da. Jarrera oso polarizatuen eta gatazka humanitarioen baitan bizi den Estatu da Israel, baina dudarik gabe, bizirik dago. Horretarako, Israelek aliatuen beharra du, eta aliatu juduak ez dira nahikoa inola ere. Azken hamarkadetan, Israelgo Estatuaren aliatu nagusia Amerikako Estatu Batuak izan dira, eta lan honetan, aliantza horren zergatietan murgilduko gara.

Israelen aliatu izateko zergati horiek bi motakoak izan daitezke, batetik, estrategikoak, eta bestetik, ideologikoak. Lan honek Estatu Batuek Israelen eta sionismoaren alde kokatzeko dituzten motibazio ideologiko horiek aztertzen ditu, Ekialde Hurbilean juduen Estatu sortzeko proiektuak Estatu Batuetako gizartean hautsak harrotzen jarraitzen baitu. AEBen jatorri puritanoa eta tradizio biblikoa bertako kulturaren zutabe egonkorak dira, politikan ere eragin nabarmen bat dutenak. Lan honetan ez da Israelek Estatu Batuen interes geopolitikoak babesteko duen gaitasuna ukatzen, izan ere, sionismoa babestea estrategia politiko baten emaitza izan daiteke. Baina Israel eta Estatu Batuen arteko aliantza ez da geopolitika hutsa. Estatu Batuetako komunitate ebanjelikoan gehienbat, Israel eta biztanleria judua liluraz begiratzea gertatzen da askotan, Itun Zaharrean duten leku berezi hori dela eta. Estatu Batuekiko pribilegiozko harreman bat du Israelgo Estatuak, bere historia motzean hainbat alditan agerian geratu dena. Harreman ezohiko hori faktore eta borroka ezberdinen emaitza da, eta lan honen helburua horiek argitzea da.

Lanaren egiturari begira, aurkezpen sakon baten ostean, bi zatitan banatzen da lana: lehenik, Israel eta AEBen arteko harreman bilateralak aztertzen dira, eta bigarrenik, sionismo kristaua bezala ezagutzen den mugimendu soziopolitikoaren azterketa dugu (lanaren ildo nagusia). Horretarako iturri ezberdinak erabili behar izan ditut. Lehenik, sionismoaren historia ondo ezagutu beharra izan dut, ordurarte gai horren inguruan nuen ezagutza oso mugatua baitzen. Ondoren, Estatu Batuetako komunikabideak irakurtzen aritu naiz, herrialde hartan Israelekiko dagoen iritzi publikora gerturatu nahian. Bestetik, erlijioak AEBetan duen eragina, eta lan honetan aspektu teologikoek duten garrantzia jakinik, Bibliaren inguruko oinarritzko ezagupen bat beharrezko egin zait. Horrez gain, online aurki daitezken hedabideetako artikulua oso baliagarriak suertatu zaizkit. Azkenik, gai honen inguruko bibliografia espezifikoa (nahiko mugatua bada ere) funtsezkoa izan da lan honen egiterako.

Bukatzeko, argi utzi nahiko nuke gai honen inguruko lan batek bizi garen Europa laikoan aurkezteak harridura eta sinesgogorkeria sor dezakeela, baina Estatu Batuak bezalako herrialde batean erlijioak eta kulturak masa sozial eta eliteengan izan dezakeen eragina ukazina da.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
1.1-Lanaren aurkezpena.....	3
1.2-Metodologia eta Iturriak.....	4
1.3-Hipotesia.....	6
1.4-Marko teorikoa.....	7
2. ISRAELGO ESTATUAREN ETA AMERIKAKO ESTATU BATUEN ARTEKO HARREMAN BILATERALAK.....	11
2.1-Harreman diplomatikoen bilakaera.....	11
2.2-Aliantzaren aspektuak.....	12
2.3-Gertakari adierazgarriak.....	12
2.4-Lobby sionistak.....	13
3. SIONISMO KRISTAUA.....	15
3.1-Sionismo kristauaren bilakaera historikoa.....	16
3.2-Erakunde sionista kristauak.....	20
3.3-Aliantzaren izaera erlijiosoa.....	21
3.4-Aliantzaren izaera kulturala.....	22
ONDORIOAK.....	24
BIBLIOGRAFIA.....	26

# 1. SARRERA

## 1.1. Lanaren aurkezpena

Jarraian aurkezten dudan Gradu Amaierako Lan hau ikasturte oso batean egindako ikerketaren emaitza da. Lanaren helburu nagusia XX.mende erdialdera sortutako Israelgo Estatuaren aliatu kristauak hura defendatzeko izan dituzten motibazioak ezagutzea da. Zehatzago esanez, AEBetako kristauak Israelen alde egoteko dituzten arrazoiak jakitea izan da nire helburua. Izan ere, munduko komunitate kristau eta sionista nagusia Estatu Batuetan aurkitzen da, hori dela eta, lan honek Israeli begiratzeaz gain, AEBek Israelekiko eta sionismoarekiko duten jarrera eta ikuspegiari begiratzen dio. Hortaz, gai honek osagai ugari biltzen ditu: gatazka geopolitikoak, lurraiekiko zilegitasuna, antolakunde politiko boteretsuak, tradizio kristaua, eta baita Bibliaren interpretazio partikularrak ere.

Gai honetan ikertuz eta sakonduz joan naizen heinean, sionismoaren korrante edo aldagai ezberdinetaz ohartu naiz. Hau da, sionismoaren historia mamitsuarekiko nuen ezagutza falta argi geratu zait ikerketa lan honen ostean. Azalean geratzen diren albiste eta iritziek sionismoa bloke judu homogeneo bat bezala irudikatzen dute, mugimendu horren aldagai aniztasunaz jabetzeko norik bere kabuz informatzea eta mugimendu horretan murgiltzea ezinbesteko delarik.

Lan honen aztergaia aliantza bat da, hain zuzen ere, sionismoaren eta kristautasunaren arteko aliantza. Beraz, aliantza honek erlijioa eta geopolitika nahasten ditu. Subjektu politiko nagusitzat AEB eta Israelgo Estatuak daude, ideologikoki kristau ebanjelikoen (tradizio protestantea dutenak) eta juduen arteko bat egitea gertatuz. Aspektu ideologikoen berebiziko garrantzia dute lan honetan, eta ideologia edo erlijioa azpimarratzeko puntua da. Hau da, ikerlan honekin, funtsean, betiere arrazoi estrategikoak ukatu gabe, kristau ebanjelikoen sionista izateko dituzten motibazio ideologikoen murgildu nahi izan dut.

## 1.2. Metodologia eta iturriak

Hasieran esan bezala, lan hau ikerketa sakon baten emaitza da, horregatik, planifikazio eta metodologia zehatz bati erantzuten dio. Lehenik eta behin, xedea Israelen aliatu kristauak ezagutzea izanik, sionismoarekiko nituen aurreiritziekin hautsi behar izan nuen. Sionismoa ez delako soilik judaismoaren produktua, juduen herri, liburu eta lurak duen, eta izan duen, sinbolismoa miresgarria eta oso ezaguna baita.

Horregatik, lan hau burutzeak, sionismoaren ikuspegi zabalago bat izatea eskatzen du. Beraz, gaira gerturatzeko sionismoaren jatorria eta historia bere osotasunean erakusten duen bibliografia ezinbestekoa da. David Vitalen *The Origins of Zionism* eta Walter Laqueurren *A History of Zionism* liburuak gerturapen historiko baterako eta sionismoa ezagutzeko funtsezkoak iruditu zaizkit. Bi liburu hauek lanaren bibliografian asko ez agertu arren, sionismoak hasieratik izandako erronkak, ideologoak, gatazkak, bilakaera, etsaiak eta aliatuak ezagutzeko nahitaezko bibliografia osatzen dute.

Horrez gain, AEBetan Israeli buruzko albisteak aztertzea beharrezko ikusi nuen, herrialde hartako biztanleriak Israelekiko izan dezakeen ikuspegia ezagutzeko. Horregatik, *NY Times*, *Foreign Affairs* edota CBN egunkari eta azken honen telebista katea ikusten aritu naiz ikasturte honetan zehar Israeli buruz ziotena aztertuz. Israelek AEBetako komunikabideetan presentzia nabarmena duela ikusi ahal izan dut. Gainera, Israelgo komunikabideak begiraturaz, hala nola, *Haaretz* egunkaria, Estatu Batuei aipamen egiten dieten berriak edo artikulua oso ohikoak direla ohartu naiz. Noski, lanerako bildutako informazioaren gehiengoa ingelesez idatzia izan da, nazioarteko afera baten aurrean baikaude.

Egoera horrek Israelek Estatu Batuekiko pribilegiozko harreman bat duela frogatzera eramán ninduen, bi nazioek kooperazioan oinarritzen diren harremanak mantentzen dituztela agerian utzi nahian. Horregatik, lanaren lehen blokea bi estatuen arteko harreman bilateralak argitu eta azaltzeaz arduratzen da. Horretarako, XX. mendean zehar bilakatutako harreman diplomatikoak, AEBek Israeli bermatutako laguntza ekonomiko eta militarra, eta Israelen pribilegiozko postu hori frogatzen duten zenbait gertakari plazaratzen ditu lanak. "U.S Israel Relations. An American Perspective", *The Ettinger Report* aldizkariako artikulua oso baliagarria suertatu zait harreman diplomatikoei dagokienez. Bestetik, kooperazioaren aspektuak ezagutzeko Esenstadt eta Pollock militar

estatubatuarrak *Washington Institute* aldizkarian garatutako artikulua edota *Breaking Defense* aldizkarirako Yoram Ettingerrek idatzitakoak ere lagungarriak izan dira.

Gainera, harreman bilateralekin jarraituz, Estatu Batuetan oso ezagunak diren lobby israeldarren azterketa bat ere beharrezko ikusten nuen aliantza horren testuinguruan. 2006an John Mearsheimer eta Stephen Walt adituek plazaratutako “The Israel Lobby” artikulua funtsezko idazlana da “munstro politiko” hauen funtzionamendua ezagutzeko. I. G. Valdecasasek eta A.M. Galvis Gutierrezek idatzitako artikulua ere oso baliagarriak izan zaizkit lobby israeldar ezberdinak ezagutzeko eta hauen izaeraz jabetzeko.

Jarraian, lana bere bigarren blokean sartzen da, eta sionismo kristau bezala ezagutzen den mugimendu politiko-erlijiosoan sakontzeaz arduratzen da. Bloke honetan, sionismo kristauaren definizioa, bilakaera eta izaera izan dira aztergaiak. Hori dena jorratu ahal izateko, AEBetako kristauen tradizio bibliko eta ebanjelikoa ezagutu beharra dago, horregatik, Itun Zaharrak eta honen interpretazioak gai honen guztiaren inguruan duen garrantzia kontuan izan behar da. Aipaturiko *Ettinger Report* edo *Foreign Affairs* aldizkariak, *Holy Land Studies* aldizkarirako Rammy M. Haiga soziologoak idatzitako artikulua, edota Michael B. Oren diplomatiko estatubatuarraren *Power, Faith and Fantasy, America in the Middle East 1776 to the Present* liburua oso baliagarriak izan dira aspektu hauetan sakontzeko. Baina gai hauetan sakontzeko xedea duen lan orok Stephen Sizerren *El Sionismo Cristiano, Hoja de Ruta al Armagedon* liburua ezinbesteko dauka sionista kristauen aspirazio teologikoak eta mugimendu horren bilakaera historikoa ezagutzeko.

Hauek lirateke, modu labur batean azalduz, lan honek behar izan dituen metodologia eta iturri nagusiak. Baina erreferentzia gisa online aurki daitezkeen hainbat artikulua erabili ditudanez, lanean zehar besteren bat gehiago aipatuko da, hemen egindako erabilera argitzea baino ez baitut helburu, iturri hauen guztien informazio osatua bibliografian eskainiko delarik. Bestalde, argi utzi nahi nuke lanean erabilitako autore askok joera ideologiko eta politiko markatua dutela, baina honen gainera, gure tesiaren frogapenerako baliagarriak direlako erabili dira. Azkenik, Xabier Zabaltza Historia Garaikideko irakaslea, eta Gradu Amaierako Lan honen tutore denari bere laguntza eskertu nahi nioke emandako aholkuen erabilgarritasunagatik.

## 1.3.Hipotesia

Lan honetan zehar, politika, ekonomia, gerra, kultura, erlijioa eta sionismoa uztartzen dira. Ez da erraza arlo horiek guztiak jorratuz baieztapen trinkoetara iristea, baina gure hipotesia frogatu eta helarazteko modu aproposena hori da.

Sionismoak bere sorreratik izan du aliatuen beharra, horretarako esfortzu handiak eginez nola edo hala mantentzea lortu duelarik. Gaur egun, Israelgo Estatuak duen aliatu nagusia Estatu Batuak dira, baina ez da beti horrela izan. Erresuma Batuak eta Frantziak hainbat aldiz bermatu dute sionismoaren biziraupena, bai arrazoi estrategikoengatik, bai arrazoi ideologikoengatik. Izan ere, sionismoa defendatzea ez da inoiz izan estrategia politiko hutsak eragindako jarrera. Aleksei Kosygin ministro sobietarrak Lyndon Johnson presidente estatubatuarrari, 80 milioi arabiar eta 3 milioi judu egonik, bere herrialdeak Israel zergatik babesten zuen galdetzean “Because it is right” esanez erantzun zuen. Ildo beretik, Ronald Reaganek “Only by full appreciation of the critical role the State of Israel plays in our strategic calculus can we build the foundation for thwarting Moscow’s designs on territories and resources vital to our security and our national well-being.” esanez argudiatu zen, eta honela jarraitzen zuen: “Since the rebirth of the State of Israel, there has been an ironclad bond between that democracy and this one” (J.V.L.org).

Historian zehar tradizio kristau indartsu bat izan duten herrialdeek juduekiko duten ikuspegia Itun Zaharrak eta antisemitismoak baldintzatu dute. Juduek Itun Zaharrean duten posizioa herri hautatuarena da. Hortaz, kristau fundamentalistek juduei liluraz begiratzea gertatu izan da, tradizio bibliko hori elkar banatzen dutelako eta juduek askotan beren izaera partikularra aldarrikatu dutelako. Dwight L. Moody, XIX.mendeko Massachusettseko artzain ebanjelikoa, hala mintzatu zen juduei buruz:

¿Qué otra nación puede reclamar una herencia como la de Abraham? Ninguna nación tiene ni puede engendrar hombres como éstos... Esa promesa fue hecha 4.000 años atrás... Cuando me encuentro con un judío, siento un enorme y sobre todo inevitable respeto por él y por su pueblo, porque ellos son el pueblo de Dios. (Sizer 2009: 84)

Idea profetiko ezagunenek jatorri judua dute, hau da, Mesiasa, Apokalipsia eta milenarismoa Itun Zaharrean plazaratutako ideiak dira, eta liburuak gertakizun horien azkentzerako juduen parte hartzea ezinbestekoa dela dio. Horregatik, juduek lilura apokaliptiko bat sortzen dute Itun Zaharra irakurtzen duten kristau askorengan. Sionismoa mugimendu laiko edo agnostiko bezala jaio arren, beti izan du kutsu askatzaile edo salbatzailea, askok mugimendu erlijioso bat bezala ulertzea eragin duena. Hori dela eta, erlijioa eta politika nahasten dituen beste mugimendu nazional bat bilakatu da, baina berezitasun batekin, Israel ez diren eta juduak ez direnentzako interes nabarmen bat izan duela. Kristau ebanjelikoek hasieratik izan zuten interesa juduengan, eta herri juduek iragarpen biblikoen betetzean partehartze bat izango dutela askotan adierazi dute.

Abraham Lincolnek Errusia eta Turkian juduek sufritzen zuten antisemitismotik askatzeko "by restoring them to their national home in Palestine" eta ideia hori "a noble dream and one shared by many Americans" zela argitu zuen (J.V.L.org). Ideologia profetiko honek AEBek Israelekin duen aliantza bultzatu du eta eragin politiko nabarmena izan du Israelgo Estatu modernoari dagokionez. Hori da, hain zuzen ere, lan honen hipotesi nagusia, Israelgo Estatuaren aliatu kristauak motibazio ideologiko-erlijiosoek mugiarazi dituztela eta mugitzen dihardutela. Betiere, argi utzi nahi nuke Israelgo Estatuaren alde kokatutako kristau guztiek ez dutela jarrera hori erlijioagatik hartu, bestelako interesak hor baitaude, baina Israel bezalako herrialde berezi batek AEBetako pentsamoldean badu indarra.

## 1.4.Marko teorikoa

Bestalde, Estatu Batuetatik jasotako babes militarrek armamentu sofistikuena bere esku izatea ahalbidetzen dio Israeli, eta gainera arma nuklearren programak aurrera eramateko kobertura bat eskaintzen dio. Michael Eisenstadt eta David Pollock adituek *Washington Institute* aldizkariarentzat idatzitako artikuluan kooperazio militar horren xehetasunak argitzen dira (Eisenstadt, Pollock 2012). Horri guztiari Israelek Estatu Batuetatik jasotako laguntza teknologiko eta informatikoa gehitu behar zaio. Izan ere, gaur egun Israel, AEBen laguntzari esker neurri handi batean, potentzia industrial bat da eta informatika enpresa nagusiek beren egoitzak Israelen dituzte (Anguita 2013).



Babes ekonomikoari dagokionez ere, kontuan hartzeko laguntza jasotzen du Israelek. Urtero, 1979 geroztik, AEBek hiru mila milioi dolarreko laguntza ekonomikoa bidaltzen dute Israelera, Estatu Batuek zuzeneko laguntza gehien ematen dion herrialdea izanik. Aipagarria da 1948an Israelgo Estatuaren sorrera gertatu zenetik AEB herrialde honetara bideratutako laguntza ekonomikoa etengabe areagotuz joan dela (Sadaka 2014).

Gaur egun, sostengu nabarmen horren sinbolo politiko nagusia AEBetako politikan hain eraginkorrek diren presio talde sionistak dira, lobby bezala ezagunak. Idazlanean zehar AEBetako barne eta kanpo politikan murgildurik dauden erakunde hauetaz jarduten den arren, lobby sionisten aktibismoak ez duela zertan judua izan aurreratu nahiko nuke.

Jarraian, Estatu Batuetako komunitate juduari buruzko datu demografiko eta politiko batzuk plazaratzea beharrezkoa da. Izan ere, AEBetan sei milioi judu aurkitzen dira, Israeletik kanpoko juduen kontzentrazio handiena osatuz. Hala ere, kopuru horrek Estatu Batuetako biztanleriaren ehuneko 2a baino ez du adierazten (eta denak ez dira adin nagusikoak). Amerikako juduak hauteskundeetan oso parte hartzaileak dira, esaterako, 2008ko hauteskundeetan Julien Schvindlermanen arabera, juduen %96ak bozkatu zuen (Schvindlerman 2012). AEBetako juduak progresistak dira gehienbat, ez dute begionez ikusten kontserbadore errepublikarren ikuspegi ekonomiko eta soziala, abortua, eutanasia, segurtasun medikua edo immigrazioari dagokionez besteak beste Juduen botoa beraz, demokraten aldekoa da nagusiki. Gainera, Iparramerikako juduen soilik % 30ak dio Israeli oso baturik sentitzen dela, eta %28ak Jainkoan sinesten ez duela aitortu zuen 2012an egindako inkesta baten arabera (Behar 2016).

Ekialde Hurbileko aferetan aditua den Daniel Pipesen blogean ondo azalduta dagoenez, Estatu Batuetan, nahiz eta bi alderdiek Israelen aldeko politikak aurrera eraman errepublikarrak demokratik eta juduak berak baino sionistagoak direla dirudi. 2006ko inkesta batek erakutsi bezala, bestalde, erlijioaren arabera sailkapen bat eginez, AEBetan Israelen aldeko komunitate konbentzituena zuri ebanjelikoek ordezkatzeko dute, %76ak Israelgo Estatuaren begiko duela adieraziz:

Taula 1

*Alderdi eta erlijioaren arabera Israelerako ikuspegia*

	Sympathize more with...		
	Israel	Palestinian Authority	Neither
All	55%	9	14
Democrats	49	11	16
Republicans	73	4	9
Independents	51	10	16
Liberals	39	16	19
Moderates	55	10	16
Conservatives	72	5	7
Evang. white Protestants	76	3	5
Non-evang. white Protestants	55	10	12
Catholics	55	11	12
Not affiliated	39	19	25
Relig. attendance:			
About once/week	68	5	9
Once a month/less	51	9	16
Never	41	17	19

Results of a March 7-10 telephone poll done by Langer Research Associates.

<http://www.danielpipes.org/blog/2006/03/republicans-and-democrats-look-at-the-arab>

### Republicans and Democrats Look at the Arab-Israeli Conflict

(DanielPipes 2006) updated Apr 26, 2019

Eskuin kristauaren eta Israelgo Estatuaren arteko aliantza honetaz baliatzea erabaki du exekutibo israeldarrak. Babes sozial guzti hori Israelen biziraupenean eragina duen fenomeno geopolitikoa bihurtu da (Shimoni 2017).

Baina zer dela eta Iparramerikako kristau ebanjelikoen Israelerako uste osoko babes hori? Erantzuna herrialde hartako historian eta tradizio biblikoan (Itun Zahar zein Berria) aurkitzen da. Itun Zaharrean Israelerako jainkoarekiko pribilegiozko postu bat dauka, eta Genesian horrela zuzentzen zaio Yahweh Abrahami: “Y bendeciré a los que te bendijeren,

y a los que te maldijeren maldeciré: y serán benditas en ti todas las familias de la tierra ” (“Versículos de la Biblia sobre Israel” 2013).

Iparramerikan, lehenengo asentamenduen garaitik erlijioa gizartearen elementu estruktural bat izan da, kalbinismoan errotutako patuaren ideia gizarte amerikarrean oso barneratua egon delarik beti. AEBen historiako gertakizun eta pertsonaiak Bibliakoekin alderatu izan dira askotan, hala nola, Independentzia Exodoarekin, Konstituzioa Itun Sakratuarekin, Washington Moisesekin, Lincolnen bizi eta obra Itun Berriarekin... paralelismo hauek etengabeak izan dira Estatu Batuetako komunitate handi eta txikietan. Gainera, Iparramerikan erritual publiko eta zeremonia kolektiboen bitartez izaera publikoko hainbat aspekturen sakralizazioa ohikoa da, honela, kongresu, senatu eta Auzitegi Gorenerako aperturetan Jainkoaren izena helarazten da. Horrez gain, krezionismo eta eboluzionismoaren arteko eztabaida etengabea izan da Amerikako hezkuntza sisteman XX.mende osoan zehar. Eskuin Kristauarentzat jokaera indibidual, familiar, ekonomiko eta politikoak lege mosaikoari lotua behar du, hau da, Jainkoaren agindu zuzenari egokituak (Maldonado 2013:18-19). Adibide hauek guztiak AEBetako gizartean eta nazioaren finkatzean Bibliak izan duen (eta oraindik mantentzen duen) garrantzia agerian uzten dute, ideia profetiko horiek Ekialde Hurbileko aferetan Bibliaren interpretazioari jarraiki parte hartzera bultzatu dutelarik gobernua.

Estatu Batuetako tradizio biblikoaz gain, oso esanguratsua da herrialde horrek Ekialde Hurbilera begira izan duen tradizio ebanjelizatzailea, batez ere XIX.mendean zehar. Michael B. Oren diplomatiko amerikarraren liburuan adierazten denez:

The missionaries dedication remained a reflection of the roles that early nineteenth-century American arrogated to themselves as the executors of Manifest Destiny, the bearers of industrial age fruits, and democratic benefactors of the world (Oren 2011: 148).

## **2. ISRAELGO ESTATUAREN ETA ESTATU BATUEN ARTEKO HARREMAN BILATERALAK**

Bi nazio hauen arteko kooperazioa erraz ikus daiteke nazioarteko panoraman. Israeldar bati galdetuz gero, oso liteke AEB nazio lagun bat bezala ikustea, zentzu batean, Israelek gaur egun duen aliatu faltak aliatu boteretsu baten laguntza asko eskertzea eragiten duelako. Sionista estatubatuar bati “laguntza” hortaz galdetuz gero, aliantza horren aldeko bere argudioak, Israelen gaitasun berritzaile eta industrialak, AEBek Ekialde Hurbilean dituzten interesak, eta terrorismo islamiarraren mehatxua izango dira alde batetik, eta bestetik, aliantza hori partekatutako balore demokratiko eta moraletan oinarritzen dela argudiatuko du (*Haaretz* 2006). Iritzi publiko hau ohikoa da Estatu Batuetan. Egoera hori antolakuntza eta motibazio indartsu batzuen ondorioa da. Horregatik, lan honek, alde batetik, bi estatuen harreman bilateral edo estrategikoak aztertuko ditu, eta bestetik, harreman kultural edo erlijiosoari erreparatuko dio.

Atal honetan, kooperazio diplomatiko, ekonomiko eta militarri begiratzen zaio, harreman horrek izandako bilakaera eta zertan datzan jakiteko. Jarraian, AEB eta Israelen arteko harreman berezi hori frogatzen duten zenbait gertakari plazaratzen dira. Eta azkenik, aliantza horren alde antolatzen diren presio taldeak aztertzen dira, haien egitekoa eta dimentsioak ezagutzeko.

### **2.1. Harreman diplomatikoak.**

Exekutibo amerikarrak 1948ra arte sionismoaren inguruan hartutako jarrera, ahalik eta anbiguoena izan zen. Halere, biztanleria estatubatuarrak eta zenbait figura esanguratsuk aferaren inguruan Israelen alde kokatzeko eskatu zion Wilson presidenteari. Nahiz eta administrazioko hainbat kide horren aurka egon, Wilsonek Balfour deklarazioa onartu eta sionismoaren alde agertu zen. Egoera oraindik nahiko hotza zen eta balizko Estatu juduaren etorkizuna ikustear zegoen.

Britainiarren atzera egitea eta Israelgo Estatuaren sorreraren testuinguruan (1948), AEBetako Estatu Sailburua, Pentagonoa eta CIA Israelgo Estatu hori onartzearen aurka zeuden, gehiengo arabiarra sobietarren alde jarriko zelakoan eta Estatu Batuek Ekialde

Hurbilean zituzten interesei kalte egingo zielakoan, edota antisemitismo hutsagatik ere. Hala ere, biztanleriaren presioak eta onura elektoralak hura onartzea eragin zuten.

1956an Israelek Sinaiko kanpaina burutu ostean, AEBetako administrazioak Gaza eta Sinaitik erretiratzeko estutu zuen Israel. Hau da, aliantza oraindik ez zegoen finkatua. Baina 1967ko Sei Eguneko Gerra ondoren, eta Israelek lortutako garaipen ustekabearen ondoren, AEBetako exekutiboak Israelekiko jarrera guztiz eraldatu zuen. Harrezkero, Israel AEBen aliatu estrategikoa izan da Ekialde Hurbilean. Israelen aliatu nagusia Frantzia izatetik Amerika izatera igaro zen, eta harremanak egonkortuz joan ziren. Orduan, “American policymakers started to view Israel as America`s small but muscular cohort in the Cold War” (Oren 2011: 527)

Hurrengo hamarkadetan Israelek Gerra Hotzaren panoraman AEBen aldeko jarrera hartu zuen SESBen aliatuak erasotuz (Irak, Libano, PLO). Geroago, 1991n Sobietar Batasuna desagitean, Israel Ekialde Hurbileko mehatxu “antiamerikarren” aurkako aliatu eraginkorrena bihurtu zen. Gaur egun, Israel Estatu Batuen aliatu nagusi bezala ezagutzen da, eta alderantziz. Aliantza hori hainbat aspektutan antzeman daiteke (Ettinger 2019)

## **2.2. Aliantzaren aspektuak.**

Israelek finantza-baliabide ugari jasotzen ditu AEBetatik: gutxi gora behera, 3.000 milioi jasotzen ditu urtero, 84.000 milioi azken 30 urteetan. Horrez gain, armamentu eta teknologia modernoaren transferentzia, arma nuklearren programak aurrera eramateko kobertura, AEBetako merkatuetarako sarbide askea, baldintza gabeko babes gatazka egoeretan, eta NBen erabaki ia guztietarako adostasuna bermatua dago bi herrialdeen arteko harremanetan (Ettinger 2018). Aliantza honek Israel egoera pribilegiatu batean uzten du Estatu Batuekiko, XX.mendean zehar hainbat alditan agerian geratu dena.

## **2.3. Gertakari adierazgarriak.**

1967ra bueltatuz, US Liberty, amerikarren komunikazio eta arakatze barku bat, guda hegazkin israeldarrek bonbardatu zuten ehundaka zauritu eta hildako eraginez. Berriazko ekintza bat izan zen, baina Washingtonek testigu izandako marinako ofizialak

isilarazi zituen, Israelen konpentsazio bat eta barkamena onartuz. Marina estatubatuarrereko testiguen hitz egin ezkerreko auzi militar batekin mehatxatu zituzten (Petras 2006: 2)

Harreman berezi horren beste adibide bat, agente israeldar bat inplikatzeko duen Gerra Hotzeko espioitza kasu nagusietako batean aurkitzen da. Jonathan Pollard hainbat urtetan zehar Pentagonoko dokumentu sekretuak lapurtu eta kopiatzen aritu zen, informazio guztia israeldarren esku utziz. AEBen kontra gauzatutako espioitza kasu handiena bezala ezagutzen da. Gobernu estatubatuarrek pribatuz protesta egin zion israeldarrei eta Pollard errudun deklaratu zuten. Azkenean, eragile pro-israeldar guztiek bere amnistiaren aldeko kanpaina egin zuten, Clinton presidentearekin lortzear egon zirelarik (Petras 2006: 3-4). Jarrera apal edo permisibo hau ez da AEBek beste espioitza kasuekin erakutsitakoa.

Israelgo Estatuak amerikarengan duen eragina bertako influentziazko politikariek leialtasuna adierazteko Israelera gauzatzen dituzten erromesaldi sinbolikoek agerian uzten dute. Mike Pompeo Estatu Idazkariak aurten egindakoa bezala. (Wong 2019)

Aliantza estu honen azken ereduak NBen bozkaketetan ikus daitezke. Erakundearen aurkeztu diren Israelek egindako giza eskubideen bortxaketak Washingtonen ez ditu inoiz onartu, gainera, Israelenganako kritikak antisemitismozat jo ditu. 1975ean, Gerra Hotzaren garaian, Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusian bazen sionismoa mugimendu arrazista bezala hartzen zen erresoluzio bat, 3379 Erresoluzioa. Baina 1991n 87 estatuk babesturik (horien artean Estatu Batuak eta Europako Ekonomia Erkidegoa) 3379 4686 Erresoluzioagatik ordezkatzeko lortu zen. Azken erresoluzio honek aurrekoa ezeztatu eta sionismoaren arrazismoa ukatzen zuen (Haija 2006: 80). Gainera, Israelgo Estatuak kritikatzeko duten ahots guztiek antisemita bezala akusatutako izateko arriskua dute. Akusazio horiek hainbat erakundek eraman dituzte aurrera eta gizartearen edozein esparrutan eman daitezke, politikan, prentsan, hezkuntzan, artean...<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Hemen ikus daitezke azken aldian AEBetan salatu diren antisemitismo kasu gutxi batzuk: Irakaslea. [https://amp.detroitnews.com/amp/1580969002?\\_twitter\\_impression=true](https://amp.detroitnews.com/amp/1580969002?_twitter_impression=true)  
Ilhan Omar. [https://www.redstate.com/brandon\\_morse/2019/02/05/watch-antisemitic-dem-illhan-omar-flees-cnn-asked-anti-israel-boycott/](https://www.redstate.com/brandon_morse/2019/02/05/watch-antisemitic-dem-illhan-omar-flees-cnn-asked-anti-israel-boycott/)  
BDS <https://www.adl.org/what-we-do/israel/anti-israel-activity-bds>

## 2.4.Lobby sionistak.

Harreman berezi honen eragile antolatu nagusiak lobby israeldarrak dira. Erakunde hauek politika estatubatuarrean oso eraginkorrak izan dira azken hamarkadetan, eta jarrera proisraeldarra esparru politiko eta sozialera helarazteko gaitasun handia dute. “Lobby israeldar” izendapena erabiltzean, modu laburrean AEBetan atzerri politika Israelen alde bideratzeko lan egiten duten banako eta antolakundeen multzoari deritzogu. Estatu Batuetan badira beste lobby gehiago, Erriflearn Elkarte Nazionala (NRA) bezala, baina lobby sionista besteengandik ezberdintzen duena berealdiko abilezia eta eraginkortasuna da.

Lobbyen lana hautagai pro-israeldarrak defendatzea, alderdiei kontribuzio ekonomikoak egitea, antolakuntza israeldarren euskarria izatea, eta iritzi publikoa bideratzea da funtsean. Lobby boteretsu eta ezagunena AIPAC (American Israel Affairs Committee) delakoa da (AIPAC.org). AEBetako politikan ohikoa dena egiten du, baina azpiegitura eta trebetasun gehiagorekin (arabiarren presio taldeak oso ahulak izanik errazagoa dute). Israelen alde egotea aukera politiko hoberena dela jakinaraztea du helburu. Horrez gain, Israeli buruzko eztabaida kontrolatuz, iritzi publikoa positiboa izateaz arduratzen da. Lobby sionistek eduki anti-israeldarra dutela kontsideratzen duten berri zabaltzaileen aurka gutun kanpainak, manifestazioak edo boikotak antolatzen dituzte (Mearsheimer, Walt, 2006) Ariel Sharonek zera esan zuen: “cuando un estadounidense me pregunta cómo ayudar a Israel, le digo que ayude al AIPAC” (Galvis Gutierrez 2016: 24). Baina AIPAC erraldoiaz gain, badira beste hainbat lobby israeldar, hala nola, American Jewish Comitte (AJC), eta Jewish Institute for National Security Affairs (JINSA) besteak beste. Gehienak XX.mende osoan sionismoaren aldeko presioan eta borrokan hainbat kanpaina burututakoak, eta organo politiko amerikarrak estutzeko tradizio baten bultzatzaileak dira. (Galvis Gutierrez 2016: 25-27)

Estatu Batuetako kongresuan ez dago Israeli buruzko debaterik, izan ere, lobbyek Israeli buruzko eztabaida ireki bat ekidin nahi dute. Beraz, AEBetan Israelgo Estatuarekin kritikoa bazara, ezinezkoa izango zaizu kanpo politikan jardutea. Dick Armeý kongresista errepublikarrak bere lehentasuna kanpo politikan “to protect Israel” zela esan zuen, adierazgarria da bere lehentasuna Estatu Batuen defentsa dela ez esatea (Mearsheimer, Walt 2006: 5). Ironiak aparte, deklarazioa hauek kongresu amerikarrak Israelekiko duen diskurtsoan ohikoak dira. Gainera, Dick Armeý ez da judua, kristau ebanjelikoa da,

Israelgo Estatu babesten duten beste hainbat eragile bezala. Beraz, “lobby judua” esaera ez da zuzena. Dirudienez, kristau ebanjelikoek ahateari igerian irakatsi nahi diote.

### **3. SIONISMO KRISTAUA**

Lobby israeldarren oinarri soziala aztertuz gero, kristau ebanjelikoak funtsezko sostengu bezala agertzen direla ikus daiteke (Valdecasas 2007: 4) Egoera hau plazaraturik, orain, lanaren atal mamitsu eta ezezagunenean murgiltzen da lana: sionismo kristaua eta Israelen aldeko erakunde kristau ebanjelikoak.

Iparramerikan kristau ebanjeliko izendapenak eliza protestanteen espektro zabal bati dagokio: luteranoak, kalbinistak, baptistak, adbentistak, metodistak, pentekostalistak... Sineskizun hauek guztiak multzo lauso bat osatu dute AEBetan, orokorrean oinarri sozial eta politiko kontserbadore batekin identifikatzen dena. Ebanjelismoa elizaz gaindiko mugimendu bat da, AEBetako gizartean eta bereziki, bertako eliteengan (kanpo politikan eragina duten figurengan) eragin nabarmena duena.

Lanaren aurkezpenean aipatu den bezala, Biblian (Itun Zaharrean) Israelek eta juduek Jainkoarekin duten harreman berezi horrek kristau ebanjelikoek sionismoarekiko duten jarrera baldintzatzen du. Izan ere, kristau fundamentalista hauentzat sionismoa mugimendu profetiko bat da, eta Kristoren Bigarren Etorreraren seinale. Sionista kristauak egiten duten interpretazio biblikoak Apokalipsia juduek populaturiko Israel batekin gertatuko dela dio. (Valdecasas 2007: 4-6).

2006an John Hageek, San Antonioko ospe handiko artzain ebanjelikoak, AIPAC-en bertsio kristauaren jaiotza iragarri zuen, “lurrikara politiko bat” izango zela adieraziz "Lurrikara" hori Christians United For Israel (CUFI) bezala ezagutzen da egun, eta haiek diotenez, Estatu Batuetan oinarri pro-israeldarra duen erakunde zabalena da, sei milioi kide eta 40 milioi jarraitzaileekin (CUFI.org).

Puntu honetan, historia, erlijioa, politika eta erakunde boteretsuak uztartzen dituen mugimendu baten aurrean gaude. Israel eta Estatu Batuetako eskuin kristauaren arteko aliantza errealitate bat da, oinarri ideologiko indartsuen eta erakunde boteretsuen



sostengua duena. Pasarte honetan aliantza hori bermatzen duten arrazoi erlijioso eta kulturalak aztertuko dira, aliantzaren izaera erlijiosoa eta bi nazioen arteko antzekotasun historikoak frogatu nahian. Baina aurretik, sionismo kristaua deritzon mugimenduak izandako bilakaera historikoa plazaratzea beharrezkoa da, tradizio eta historia luzea duen fenomenoa baita.

### **3.1.Sionismo kristauaren bilakaera historikoa**

Pasarte honen helburua John Hagee CUFİ erakundeko buruzagi texastarrak deritzon “sionismo kristauaren munstroak” duen jatorria eta bilakaera historikoa ahalik eta modu laburrenean azaltzea da (*Ynet.news* 2007). Doktrina politiko-erlijioso honen inguruko gertakari, zabaltzaile eta ideologoak asko izan direnez, garai bakoitzeko sionismo kristauaren ezaugarri eta pertsonaia esanguratsuenen deskribapena izango da hurrengoa.

Sionismo kristauaren jaiotza bere testuinguru soziopolitikoan ulertu beharra dago. XVIII.mendearen azken laurdeneko astindu politikoek (AEBen Independentzia, Frantziar Iraultza, Gerra Napoleonikoak edota Industrializazioa) interesa berpiztu zuten iragarpen biblikoetan, korrante ebanjeliko nagusi zein sektarioetan teologia apokaliptiko edo milenaristen susperraldia eraginez. AEBetan ere hainbat lider kristauk munduaren amaiera hurbil zegoela aurreikusi zuten. Gertakizun garaikideak Bibliako iragarpenekin lotzen zituzten predikuak entzute handikoak ziren. Europa (Ingalaterra betez ere) eta Estatu Batuak ekialderantz eta herri juduari begiratzen hasi ziren, neurri handi batean Palestinan emandako aurkikuntza arkeologikoen eta bidaietako gidaliburuen eraginez. 1830ean Ekialde Hurbilerako bisita Europako aristokraten *grand tour* famatuan sartu zen. Testuinguru honek kristau ebanjelikoek Itun Zaharrean eta honen interpretazio futuristan zuten interesa handitu zuen, juduen errestituzioa ideia garrantzitsu bihurtuz. (Sizer 2009:40-41)

XIX.mende hasieran, Britainia Handian London Jews Society (LJS) erakundea sortu zen. Juduen emantzipazioa eta Palestinako asentamenduak sustatzea zuen helburu, gertakizun horiek Kristoren itzulera eragingo zutelakoan. Enbrioi egoeran aurkitzen zen mugimendu hau Eliza anglikarraren barruko zirkulu eta konferentzietan antolatu zen. Ordurako, Britainiar Inperioko landa guneko eliteak Itun Zaharreko tribu galduen bilaketa eta errestituzioa zituen helburu ideologiko nagusi bezala. Baina horrez gain, zirkulu hauek

zuten misio nagusia juduen konbertsio kristaua zen, Kristoren Milurteko erreinua gauzatzeko ezinbesteko pausua baitzen haientzat.

Baina XIX.mendean zehar lehentasunak aldatuz joan ziren, eta dispentsazionalismoaren, hau da, Itun Zahar eta Berria uztartuz historia azaltzen duen doktrina erlijiosoaren indartzearekin, juduen Palestinako errestituzio politikoa ebanjelizazioa baino beharrezkoagoa bihurtu zen. Ideologia horren bultzatzaile nagusietako bat J.N. Darby izan zen, Plymoutheke Anaiei eliza fundatu zuen Bibliaren ikasketa sustatzeko, eta honelako elizak hainbat herrialdetara zabaldu ziren (Alemania, Suitza, Frantzia, AEB...). Darbyk hainbat alditan bisitatu zituen AEBak bere mezua zabalduz. Bere ideiek Estatu Batuetako eskola bibliko ebanjelikoak eta konferentzia profetikoak modelatu zituzten, 1875 eta 1920 arteko mugimendu ebanjeliko eta fundamentalista baldintzatuz. Darbyren predikuak Estatu Batuetako dispentsazionalismoaren ideologo nagusiek entzun zituzten. Gainera, Erresuma Batuko kanpo politikan eragina izatera heldu zen bere ideiak onartu zituzten politiko aristokratikoen partehartzearekin. (Sizer 2009: 61-63)

Sionista kristau hauek ere arretaz begiratu zuten mugimendu sionista judua. 1885ean William Hechler, kapilau anglikar sionista, Vienako enbaxadore izendatu zuten. Hechler Herzl ideologo sionista nagusiaren aliatu kristau eraginkorrena izan zen. Haren bitartekaritzari eskerrak Herzl Badeneko Duke Handiarekin, Enperadore alemaniarrarekin eta Britainia Handiko *establishment* politikoarekin bildu zen (Laqueur, 1972: 99). 1916an Ingalaterrako lehen ministro izendatutako Lloyd George ere sionista kristaua zen, jasotako hezkuntza ebanjelikoa zela eta (Sizer 2009: 79).

Balfour deklarazioari dagokionez (1917), Lehen Mundu Gerran Britainia Handiko atzerri ministro zenak mugimendu sionista babesteko arrazoiak bi izan zirela uste da: batetik, Otomandar Inperioa ahulduz Britainia Handiak Ekialde Hurbilean nagusitasuna lortzeko asmoa; eta bestetik, Balfourrek jasotako hezkuntza puritanoa eta Darby bezalako elizgizonen eragina egongo litzake. Beraz, dogmatismo erlijiosoa eta onura politikoa uztatzen zituen proiektuak Erresuma Batuko teologo eta politikoak kausa sionista defendatzera bultzatu zituen, AEBetan berdina gertatu zelarik. Hala eta guztiz ere, sionismoaren babes horren atzean, izaera antisemita eta juduak gainetik kentzeko proiektua zegoela baieztatu daiteke.

Baina aurreko pasarteetan argitu den moduan, AEBetan oso ohikoa da Itun Zaharraren eragina politika arloan. Hortaz, Independentzia Gerrak espekulazio apokaliptikoak piztu

izana normala litzake, Jurgi III.a antikristotzat hartuz. XVIII.mende amaiera eta XIX.aren hasieran eliza milenarista askoren fundazioa gertatu zen, hala nola, mormoiena. Mendearen bigarren erdialdean, Darbyren bira misiolariak eta Gerra Zibilak ideia apokaliptiko eta mileranistak garatzeko eremu emankor bat eragin zuten. Mugimendu ebanjeliko lokalak doktrina horiek jaso zituen eta sionismo kristau estatubatuarra piztu zen.

AEBetan sionismo kristauak izandako predikatzailer nagusietako bat William Blackstone izan zen. *Jesus is Coming* liburuan mugimendu sionista Kristoren itzulera hurbilaren seinale zela interpretatu zuen, iragarpen biblikoen manifestazio literal bat balitz bezala. Blackstonek hitzaldi ugari eman zituen kristau zein juduek kausa sionista babes zezaten, Rockefellerengan eta Harrison presidentearengan eragina izatera iritsiz. Blackstonek adierazitako guztia Scofieldek bere Bibliaren bertsio ohardunean sistematizatu zuen.

1909an bere obra argitaratu zenetik Scofield dispentsazionalismoaren barruan eragin handiko teologoa bihurtu zen. Bere Bibliaren bertsio oharduna mundu ebanjelikoaren idazlan irakurriena izan zen XX.mendearen lehen erdialdean. Dallaseko Seminario Teologikoan Scofielden Biblia oinarrizko ikasketa zen eta fundamentalismo biblikoaren eredu bihurtu zen (Sizer 2009: 90-100)

XX.mendean zehar AEBko kristauak sionismoari emandako babes indartsua eta progresiboa izan zen. Baina 1930 eta 1950eko hamarkaden artean, Israelgo Estatuaren sorrera aurretik eta ostean, sionismoaren aliatu nagusiak kristau protestante liberalak ziren. Demokraten artean Israelen babes indartsuagoa zen errepublikarren artean baino. Roosevelt eta Martin Luther King AEBek Israel defendatzeko aldarrikatzen zuten ahots garrantzitsuak ziren. Izan ere, Amerikako arrazismoak beltzak Europako juduekin identifikatzea eragin zuen, sionismoa defendatu zutelarik. Gainera, Holokaustoaren berriek progresista amerikarrak juduen alde kokatzea eta sionismoaren aktibismoan jardutea eragin zuen. Beraz, Truman administrazioko kide garrantzitsuak Israelgo Estatuaren onarpenaren aurka kokatu arren, hauteslegoan zuen eragina ikusirik AEBek onartu egin zuten Israelgo Estatu (Russell 2008).

1967tik aurrera ordea, Israelen aldeko babes AEBetan aldatu egin zen, ezkerretik eskuinera igaro zela esan daiteke. Israelen okupazio politikoak afroamerikar, liberal eta intelektualak palestinarren alde kokatzea eragin zuen. Baina eskuin ebanjeliko edo eskuin kristauaren filetan Israelgo Estatuaren babes nabarmen biziagotu zen. Izan ere, eskuin

kristauak arabiarren ikuspegi negatiboa garatu zuen Gerra Hotzean sobietarren aldeko erabakiak hartzeagatik. Gainera, Sei Eguneko Gerrak iragarpen profetiko biblikoen adierazpen bat suposatzen zuen AEBetako kristau ebanjelikoentzat. Hiru herrialde etsai menperatu izanak eskuin kristauaren imajinazioa garatzea eragin zuen, eta harrezkero, munduarentzat Israelen irudia okertzen zituzten ekintzek Ameriketako kristau errepublikarren babesa jaso dute. Jerusalem berriz ere juduen menpe egoteak testu sakratuen egiazkotasuna frogatzen zuen perspektiba AEBetako politikan murgildu zen, eta ez errepublikarrengan soilik. Carter presidente demokratik hala esan zuen: “El establecimiento de la nación de Israel representa la consumación de la verdadera esencia de esta profecía bíblica” (Sizer 2009: 105).

80ko hamarkada eta Reaganen presidentziari dagokionez, sionismo kristauak inoiz baino indar gehiago lortu zuen. Reaganek, kanpainan zehar, behin eta berriz iradoki zuen bere generazioa Armagedon borrokaren testigu izan zitekeela. Reaganen lehendakaritzan hiru lider kristauri ateak ireki zitzaizkien: Falwell, Pat Robertson eta Hal Lindsey. Hiru artzain ebanjeliko hauek inork baino gehiago lagundu dute AEBetako kanpo politikak pro-sionista izaten jarrai zezan.

1970eko hamarkadan Estatu Batuetako kristau kontserbadoreen antolakuntza politiko bateratu bat bultzatu nahi izan zen. Garai hartan jaio zen, Jerry Falwell artzainaren eskutik, Moral Majority lobby kristaua. Bloke antolatu honek milaka eliza eta milioika boto emaile mobilizatzeko gaitasuna zuen, gaur egun Christian Right bezala ezagutzen dena. Erakunde hau AEBetako mugimendu sozial zabalena bihurtu zen bizkor, eta baita alderdi errepublikarraren botoen euskarri nagusia ere. 1979an Falwellek Israelera egindako bidaia batean adierazitakoa oso adierazgarria da, “God had been good to America because America had been good to the Jews”. Sionismo kristauaren aspektu teologikoak aurrerago zehatzago azaltzen direnez, orain, Israelgo Estatuak bloke kristau kontserbadore horrekiko harturiko posturari erreparatzen zaio. Izan ere, Falwell eta Billy Graham (beste artzain ebanjeliko ezaguna) Moral Majority fundatu zen urtean New Yorken Israelgo Begin lehen ministroarekin eta Likud alderdiko buruzagiekin afaltzeko elkartu ziren. Afari hartan Falwell eta Grahamek Jabotinsky domina jaso zuten “bizi osoan zehar nazioaren lagun izategatik”, gainera, Beginek Falwelli jet pribatu bat oparitu zion bere mezua zabal zezan. Modu honetan, Israel eta eskuin kristauaren arteko aliantza formalki ezarrita geratu zen Israelek aliatuen premia zuen momentu hartan. Falwellek bere erakundea erabili zuen Israelen interes politikoak aupatzeko, eta 1985ean Moral

Majority National Christian Leadership Conference for Israel (NCLCI) batzarrarekin uztartu zuen. (Haija 2006: 77)

Pat Robertson Estatu Batuetako zirkulu politiko eta erlijiosoetako pertsonaia boteretsuenetako bat da. 1960an Christian Broadcasting Network (CBN) telebista kate kristaua sortu zuen. Kate honen telesaila 180 herrialdetara iristen dira eta 71 hizkuntza ezberdinetan helegiten da. Sare boteretsu hori ikuspegi pro-israeldarra zabaltzeaz arduratzen da, besteak beste, Israeli buruzko albistegi bat emitituz.

Ospe eta eragin handiko hirugarren artzain ebanjelikoa Hal Lindsey da. Lindsey 80ko hamarkadan Estatu Batuetan liburu gehien saldu zituen autorea da (Smith, 2017). Historia eta iragarpen biblikoak lotuz burutzen duen metodoaren arabera, Sobietar Batasunaren desagitea, islam militantearen agerpena, gatazka israel-palestinarra edota Dorre Bikien eraso terrorista Kristoren Bigarren Etorrera baieztatzen duten seinale garbiak dira. Lider ebanjeliko hauek, guztira, astero 100 milioi estatubatuarren audientzia jaso dezakete beren komunikabide guztiei esker, eta gainera, gobernu amerikar eta israeldarrekin zuzenean interpelatzeko sarbidea dute (Sizer 2009:111-117).

## **3.2.Erakunde sionista kristauak.**

Deskribatutako Moral Majority erakunde erraldoiaz gain, sionismo kristauak beste hainbat erakunde sortu eta garatu ditu. Jarraian, mugimendu honen inguruan loratutako erakunde batzuk deskribatzen dira modu laburrean. Lehen urteetan, hau da, XIX.mendean, erakunde hauek juduen laguntza humanitarioaz eta hauen konbertsioaz arduratzen ziren. Hor ditugu London Jews Society (LJS), 1809an sortua, (Sizer 2009: 116) edo Churchs Ministry Among Jewish People (CMJ) 1842an sortua (cmj.org).

1887an Blackstonek Chicago Hebrew Mission sortu zuen, gaur egun American Messianic Fellowship International bezala ezagutzen dena. Beren publikazioetan AMFI horrela definitzen da: “Un ministerio evangélico conservador que busca la realización de los designios divinos construyendo puentes de entendimiento entre las comunidades cristianas y judías” (Sizer 2009: 117).

Baina 1980tik aurrera modu hartako askoz erakunde gehiago garatu ziren. Estimazioen arabera, 1980-1985 urteetan 250 antolakunde ebanjeliko pro-israeldar baino gehiago

agertu ziren. Hala nola, Bridges for Peace (BFP), batez ere Sobietar Batasuneko juduek Israelerako emigrazioa bideratzeaz arduratzen zena (bfp.org). Garai hortan ere International Christian Embassy Jerusalem (ICEJ) sortu zen. Erakunde hau mundu ebanjeliko osoan zehar zabaltzen da, juduen emigrazioa sustatuz, laguntza soziala eskainiz, eta “Jainkoaren nahia zabalduz”. Ziur asko, erakunde sionista kristau indartsuena eta polemikoena da ICEJ. 140 herrialdetan ditu “enbaxadoreak” eta 100.000 kide baino gehiago ditu (icej.org, edo israelmybeloved.com). Egindako salaketen arabera, ICEJ erakundeak diru laguntzak eman dizkie asentamendu judu ilegalei eta baita Jerusalem Temple Foundation (JTF) erakundeari. JTF-ren helburu nagusiak musulmanen Arroka Kupula suntsitu eta haren ordezkari juduen Hirugarren Tenplua eraikitzea dira. Gainera, ICEJ erakundeak Tabernakuloen Festa babesten du, festa hau, juduek ez ezik, mundu osoko sionista kristauak ere urtero Jerusalem Israelen alde ospatzen duten festa erlijiosoa da (Sharon 2018). Ekintza hauek sionismo kristauak Ekialde Hurbileko gatazkarekiko duen ezagutza falta agerian uzten dute, izan ere sionismo kristauaren helburuak juduen errestituzioetik, Jerusalem hiriburu izendatzera eta tenplu judua berreraikitzen iritsi daitezke (Sizer 2009: 181-210). Erakunde hauek gobernu estatubatuarra estutzeko duten gaitasuna kontuan izanik, ideologia hau Ekialde Hurbileko bakearen mehatxu nagusietako bat bihurtu da.

### **3.3. Aliantzaren izaera erlijiosoa.**

Sionismo kristauaren oinarri teologikoetan murgiltzeko, dispentsazionalismoa ezagutu beharra dago. Izan ere, doktrina hau Estatu Batuetako eliza ebanjelikoen arau orokor bihurtu da, aldagai teologiko ezberdinekin bada ere. Funtsean, dispentsazionalismoak zera dio, Jainkoak historian zehar bere grazia eta borondatea administratzeko garai ezberdinetan modu ezberdinak erabili dituela. (Trujillo 2014: 2) Zazpi dispentsazio existitzen omen dira:

1. Inozentzia- Adam
2. Kontzientzia- Noe
3. Gizakien Gobernu- Abraham
4. Promesa- Moises
5. Legea- Gurutziltzatzea arte

6. Grazia- Bigarren Etorrera arte
7. Erreinua- Milurtekoa eta Erreinu Amaigabea

Doktrina kristau hauek sionismo kristauaren bilakaeran eragina izan dute, Israelek Bibliaren interpretazioetan duen garrantzia dela eta. Hurrengo dispentsazioa Kristoren Bigarren Etorrerarekin eta Apokalipsiarekin gauzatuko da, eta ordurako juduek Israelgo lurrera itzulirik egon beharko dute, elizaren betebeharra gertakizun hori errealitate egiten laguntzea den bitartean. Baina Bigarren Etorrera eta Milurtekoaren aurretik Atsekabe Handia deritzon zazpi urteko garaia gertatuko da, Armagedon borrokarekin amaituko dena. Borroka hartan Jainkoa eta Israel baztertzen dituzten indarrak menderatuak izango dira eta Mesiasaren itzulera gertatuko da (Sizer 2009: 223-244).

Apokalipsian juduek izango duten papera oso eztabaidatua izan da sionismo kristauaren zirkuluetan. Funtsean, juduek halabeharrez kristautasunera konbertitu behar dutela denek onartzen dute. Beraz, filosemitismo hori partziala eta igarokorra da, amaieran herri hautatua kristaua baita. Antza denez, antisemitismoaren mamuak badu bere tokia sionismo kristauaren inguruan. Van der Hoeven ICEJ erakundeko buruak honela adierazi zen juduen konbertsioaren inguruan: “Con el tiempo, la religión judía tendrá que hacer sus propios cambios... esta modificación no atañe a los individuos sino a todos los judíos, como entidad colectiva” (Sizer 2009: 169).

### **3.4. Aliantzaren izaera kulturala.**

Zentzu batean, esan genezake, sionismoak Estatu Batuetako gizartean miresmen sentimendu bat pizten duela. Baina Israelek ebanjelikoentzako inspirazio erlijioso bat irudikatzeaz gain, bi nazioen jaiotze eta ezartze prozesuei dagokienez, paralelismoak ikusten dituzte. Beraz, partekatzen dituzten ezaugarri nazional horiek haien arteko harremana estutzea eragingo lukete.

Estatu Batuen finkatze nazionalak Israelen sorrerarekin ezaugarriak partekatzen dituela esatean, ez dagokio sionismoak sortutako Israel Modernoari soilik, baita Itun Zaharreko hebrearrei ere. Hau da, sionista kristauek amerikar modernoak eta Biblian irudikatzen diren antzinako hebrearren esperientzietan antzekotasun historikoak ikusten dituzte. Hori

dela eta, Itun Zaharreko hizkerak, heroiak eta ideiak psike amerikarreen barneratuak izan dira (Ettinger 2019).

Columbia, Dartmouth, Harvard, Princeton eta Yale unibertsitate ezagunetan hebrear biblikoaren ikasketak derrigorrezkoak ziren. Unibertsitate horietako batzuek hebreeraz idatzitako inskripzioak dituzte beren armarrietan (Ettinger 2019). Gainera, Estatu Batuetan izen biblikoak dituzten herri, hiri, parke eta desertuak Israel bertan aurkitzen direnak baino askoz gehiago dira. Honela, AEBetan 18 Jerusalem, 24 Shilos, 18 Hebron eta 12 Jericho aurkitzen dira besteak beste. Adierazgarria da ere, Iparramerikan idatzitako lehen liburua Salmoen itzulpen bat izatea, 1640an (Ettinger 2018).

Myflower ontzia Mundu Berrira iritsi zenetik, herrialde baten identifikazio bibliko bat hasi zen. Puritanoek ziotenez, Britainia “Egipto Modernoa” zen, eta Atlantiar Itsasoa gurutzatzea Moisesen “Itsasoen banaketa modernoa” zen, eta Amerikako Koloniak “Hitzemandako lur berria” ziren. Harrezkero, AEBetan historian zehar emandako gertakizunei izaera bibliko bat atxikitzea ohikoa izan da. (Ettinger 2018) Beste adibide adierazgarri bat hiriburuaren egoera territorialean aurkitzen da, izan ere, Washingtonek ezin du estatu baten barnean egon, Jerusalemek tribu baten lurraldean egon ezin zuen bezala. Estatu Batuetako diskurtso publikoan etengabe plazaratu dira paralelismo hauek. Trump administrazioak Ekialde Hurbileko aferen inguruan hamar puntu plazaratu zituen, Bibliako Hamar Aginduak gogoraraziz (Ettinger 2016).

Horrez gain, XIX.mendeaz geroztik, Estatu Batuek beren burua Jainkoak hautatutako agente bezala ikusi dute juduen babes eta askapenari dagokionez. Amerikar askok juduek egoera tamalgarri batetik oparotasunera iristeko Israelera migratzea aldarrikatzen dute, amerikarrek Europatik Estatu Batuetara eginiko “exodo” horren antzera (Russell 2008).

Antzekotasunekin jarraituz, Israel eta Estatu Batuek partekatzen duten beste ezaugarri bat haien mugalari izaera edo “estatu kolono” izaera da. L. D. Brandeis hogeigarren mende hasierako politiko estatubatuarrak “Jewish Pilgrim Fathers” izendapena erabili zuen sionismoa eta Estatu Batuen garapena alderatuz (Oren 2011: 354). Hau da, biak kanpotik etorritako pertsonak garatutako lurraldeak dira, horretarako, bertako jatorrizko populazioa desplazatu eta ordezkaturik. Ondoren, bi nazioek hainbat gatazka jasan dituzte biztanleria autoktonoarekin, eta biek bilatu dute lur eremu horren jabetza justifikazioa Itun Zaharrean. Argudio biblikoek gain, lurralde horien gaineko eskubidea haien erabilera apropos batek ematen duen argudioa dago, izan ere, israeldarrek eta amerikarrek hutsik



eta alferrik zeuden lurren jabetze praktiko bat bezala justifikatzen dute okupazioa (Russell 2008).

## ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan hau kristau ebanjelikoek eta Estatu Batuek Israelen alde egoteko dituzten motibazio ideologikoak erakusten saiatu da. Horretarako, antolakuntza boteretsu bat garatu eta Estatu Batuen kanpo politika baldintzatu dutela frogatzea beharrezkoa zen, bestela, sekta minoritario batetaz ari garela pentsa zitekeen, eta ez da horrela. Ideologia honek masak ez ezik, eliteak ere mugiarazten ditu. George W. Bush, *new-born Christian* denak, bere presidentzia garaian egunero irakurtzen zuen Biblia, eta bere fede kristauak Estatu Batuen politikan eragina izan zuen (*Frontline* 2004). Gaur egungo AEBetako presidenteordea, Mike Pence, ere kristau fundamentalista da, eta horrek bere Israeletikiko ikuspegia moldatzen du, “Let me say emphatically, like the overwhelming majority of my constituents, my Christian faith compels me to cherish the state of Israel” (R.N.S. 2016).

Israel gurtzen duten mugimendu apokaliptiko hauek eragin handia dutela eta AEBen kanpo politika baldintza dezaketela onartzea zaila izan daiteke europar mentalitate laikoarentzat. Baina AEBetako tradizio biblikoa eta kristau ebanjelikoen antolaketa politiko zein elektorala ezagutuz gero, argi ikusten da sionismo kristaua ez dela sekta minoritarioen fenomeno bat. Sionismo kristauaren dimentsioari buruzko estimazioak oso aldakorak dira. Haren defendatzaileek 100 milioiko kopuruak baieztatu arren, adituek 25 edo 30 milioiko kopuruetaz dihardute. Haien kalkuluen arabera, sionismo kristauak 80 mila artzain fundamentalista ditu, eta haien mezua mila irrati igorgailu eta ehun bat telebista kate kristauk hedatzen dute AEBetan.

Sionismo kristaua sionismoaren beste aldagai bat da, sionismo judua baino tradizio zaharragoa duena. Bere jatorriak puritanismora eta XIX.mende hasierako sektarismo premilenaristara garamatza. XX.menderako, AEBetako mugimendu dispentsazional nagusia bihurtu zen eta konfesio ebanjeliko gehienetan zabaldu zen. Kristau boteretsu askoren kolaboraziorik gabe Israelgo Estatua garatu ahal izatea zalantzan dago. Bestalde, kontuan hartu behar da mugimendu hau antisemitismoarekin bateragarria dela, horrek ere sionismo kristauaren indarra azaldu dezakeelarik.

AEBek 1967tik aurrera behintzat, Israelgo Estatuari bermatutako babesak haren biziraupena eta garapena ziurtatu du. Gainera, aliantza horrek Israel Estatu Batuen kanpo politikan lehen kezka izatea eragin du, Israeli pribilegiozko postu bat emanez. Funtsean aliantza horren arrazoiak lobby israeldarren presioa eta motibazio antropologiko zein teologikoak izan dira. Harrigarria badirudi ere, sionismo kristauak politika eta erlijioa modu eraginkor batean nahastuz, Ekialde Hurbileko errealitatea baldintzatu duen fenomeno bat bilakatu da (Estatu Batuen enbaxadaren lekualdatzea hor dago).

Ondorioz, baieztza genezake, herrialde eta biztanleria baten tradizio biblikoak eta kezka teologikoak, babesle gisa ideologo eta lobby boteretsuen lan eraginkorra edukiz inperio baten ibilbide diplomatikoa baldintza dezakela.

## BIBLIOGRAFIA

AIPAC: AMERICA'S PRO-ISRAEL LOBBY <<https://www.aipac.org/>> [2018-11-25]

ANGUITA, C. (2013). "Innovación: El secreto mejor guardado de Israel", *FayerWayer*. <<https://www.fayerwayer.com/2013/04/innovacion-el-secreto-mejor-guardado-de-israel/>> [2019-04-23]

BEHAR, R. (2016). "Elecciones de Estados Unidos/ El voto judío", *Enlace judío*. <<https://www.enlacejudio.com/2016/02/28/elecciones-de-estados-unidos-el-voto-judio/>> [2019-02-24]

BENHORIN, Y. (2007). "Christian Zionists: Ahmadinejad is new Hitler", *Ynet News*. <<https://www.ynetnews.com/articles/1,7340,L-3427247,00.html>> [2018-12-14]

CHRISTIANS UNITED FOR ISRAEL. <<https://www.cufi.org/impact/about-us/cufi-in-action/>> [2018-11-25]

EISENSTADT, M. & POLLOCK, D. (2012). *How the United States Benefits from Its Alliance with Israel*. Washington: The Washington Institute.

ETINGER, Y. (2016). "New era for US-Israel relations", *The Ettinger Report*. <<http://theettingerreport.com/new-era-for-us-israel-relations/>> [2019-02-04]

\_\_\_\_\_ (2018). “Aid to Israel isn’t a Foreign Aid; It’s an Investment”, *Breaking Defense*.  
<<https://breakingdefense.com/2018/09/aid-to-israel-isnt-foreign-aid-its-an-investment/>>  
[2018-11-08]

\_\_\_\_\_ (2018). “The 400-year-old unique foundations”, *The Ettinger Report*.  
<<http://theettingerreport.com/us-israel-ties-the-400-year-old-unique-foundations/>>  
[2019-03-10]

\_\_\_\_\_ (2019). “US-Israel relations- an American perspective”, *The Ettinger Report*.  
<<http://theettingerreport.com/us-israel-relations-an-american-perspective/>> [2019-02-04]

\_\_\_\_\_ (2019). “The Jewish profile in the US polity”, *The Ettinger Report*.  
<<http://theettingerreport.com/the-jewish-profile-in-the-us-polity/>> [2019-03-10]

FRONTLINE: “The Spirituality of George W. Bush”  
<<https://www.pbs.org/wgbh/pages/frontline/shows/jesus/president/spirituality.html>>  
[2019-05-28]

GALVIS, A. M. (2016). *Perspectiva del análisis del papel de la alianza entre las organizaciones cristianas- evangélicas y las judías en relación con la política norteamericana frente al conflicto palestino- israelí*. Bogotá: Universidad Colegio Mayor de Nuestra Señora del Rosario.

GARCÍA-VALDECASAS, I. (2007). “El lobby israelí en Washington y su influencia en el Estado de Israel”, *Real Instituto Elcano*. <<http://biblioteca.ribei.org/1275/1/DT-13-2007.pdf>> [2019-05-03].

HAARETZ: “David Brog on Why Christians Support the Jewish State”  
<<https://www.haaretz.com/1.4904513>> [2019-01-21]

ICEJ: INTERNATIONAL CHRISTIAN EMBASSY JERUSALEM  
<<https://int.icej.org/media/christian-zionism-101>> [2019-02-16]

ISRAEL MY BELOVED: GOD’S BANNER TO THE NATIONS  
<<https://israelmybeloved.com/>> [2019-03-14]

JEWISH VIRTUAL LIBRARY: “U.S.- Israel relations: Roots of the U.S.- Israel Relationship.” <<https://www.jewishvirtuallibrary.org/roots-of-the-u-s-israel-relationship>>  
[2018-11-03]

- LAQUEUR, W. (1972). *A History of Zionism*. New York: MJF Books.
- MALDONADO, J. (2013). *Política y religión en la derecha cristiana de los Estados Unidos de América*. Madrid: Universidad Complutense.
- MCFARLAN, E. & WINSTON, K. (2016). “5 faith facts about Mike Pence: A ‘born-again, evangelical Catholic’”. *religion news service* <<https://religionnews.com/2016/07/14/5-faith-facts-on-mike-pence-a-born-again-evangelical-catholic/>> [2019-05-20]
- MEARSHEIMER, J. & WALT, S. (2006). “The Israel Lobby”, *London Review of Book*. <<https://www.lrb.co.uk/v28/n06/john-mearsheimer/the-israel-lobby>> [2018-11-25]
- OREN, M.B. (2011). *Power, faith and fantasy: America in the Middle East 1776 to the present*. New York: W.W Norton & Company.
- PETRAS, J. (2002). “Israel y Estados Unidos: una relación única”, *Laberinto 10*. <[https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as\\_sdt=0%2C5&q=JF+Petras+Estados+Unid+os+e+Israel&oq=petras](https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as_sdt=0%2C5&q=JF+Petras+Estados+Unid+os+e+Israel&oq=petras)> [2019-03-19]
- PIPES, D. (2006). “Republicans and Democrats Look at the Arab-Israeli Conflict”, *Daniel Pipes Blog*. <<http://www.danielpipes.org/blog/2006/03/republicans-and-democrats-look-at-the-arab>> [2019-03-04]
- RUSSELL, W. (2008). “The New Israel and the Old: Why Gentile Americans Back the Jewish State”, *Foreign Affairs*. <<https://www.foreignaffairs.com/articles/israel/2008-06-01/new-israel-and-old>> [2019-05-01]
- SADAKA, J. (2014). “La dependencia de la economía israelí de los Estados Unidos”, *Mundo Arabe*. <[https://mundoarabe.org/israel\\_eeuu\\_economia.htm](https://mundoarabe.org/israel_eeuu_economia.htm)> [2019-03-11]
- SCHVINDLERMAN, J. (2012). “El voto judío en las elecciones de EE.UU”, *Porisrael*. <<http://porisrael.org/2012/11/12/el-voto-judio-en-las-elecciones-de-eeuu/>> [2019-02-24]
- SHARON, J. (2018). 7.000 christians evangelicals parade through capital in annual Jerusalem march event. *JerusalemPost*. <<https://www.jpost.com/Israel-News/7000-Christian-Evangelicals-parade-through-capital-in-annual-Jerusalem-March-event-568185>>

SIZER, S. (2009). *Sionismo cristiano: ¿Hoja de Ruta a Armagedón?*. Madrid: Bósforo Libros.

SMITH, E. (2017). *The Late Great Planet Earth* Made the Apocalypse a Popular Concern. *Humanities* vol. 38. <<https://www.neh.gov/humanities/2017/winter/feature/the-late-great-planet-earth-made-the-apocalypse-popular-concern>>

TRUJILLO, J.L. (2014). “El Dispensacionalismo”, *Scribd*. <<https://es.scribd.com/document/322072535/Dispensacionalismo-PDF>> [2019-04-23]

VERSÍCULOS DE LA BIBLIA: “Versículos de la Biblia sobre Israel”. <<http://www.versiculosbiblia.org/versiculos-de-la-biblia-sobre-israel/>> [2019-05-13]

WONG, E. (2019). “The Rapture and the Real World: Mike Pompeo Blends Beliefs and Policy”, *The New York Times*. <<https://www.nytimes.com/2019/03/30/us/politics/pompeo-christian-policy.html>> [2019-03-30]